

# FLEXPETZ

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Askotan azaldu dugun bezala, gure proiektua hainbat modutan banatuko dugu, edo hainbat modutan helduko da gure produktua bezeroen eskuetara.

Alde batetik, interneten bidez salduko dugu, horrela, produktua leku gehiagotara heltzea lortuko dugu. Hasieran ez dugu mundu guztira zabalduko oso zaila delako edo ia ezinezkoa, produktua berri-berria izango delakoan eta gainera nahiko diru inbertitu behar izango dugulako beste motatako ekintzetan.

Produktua aurrera joango balitz eta horren emaitza ona izango bazen, ez genukeen baztertuko mundu osora zabaltzearen ideia, baina hori askoz aurrerago ikusiko genuke.

Interneten bidez saltzeak hainbat abantaila eta desabantaila ditu. Alde batetik, ez ditugu langilerik behar denda batean saltzaile bezala egoteko, beraz, diru pixka bat aurreztuko genuke, baina beste aldetik, informatikan



espezializatua dagoen langile gutxi batzuk behar izango ditugu, eta gainera, gure produktua bezeroengana heltzeko, banaketan arduratzen den enpresa bat kontratatu beharko genuke, eta hori diru pila suposatzen du.

Beste aldetik, gure produktua informatika dendarara salduko dugu, ondoren haiek kontsumitzaileei zuzen-zuzenean saltzeko. Gu dendak jarritz gero, diru pila suposatuko luke, baina aurrerago dena ondo joango balitz, ez genukeen baztertuko gure produktuan espezializatzen diren denda batzuk zabaltzea, horrela kontsumitzaileek zuzen-zuzenean produktua erosi, informazioa jaso... ahal izango lukete.



Egia da, lehenago aipatu dugun bezala, bulegotxo txiki bat edukitzea gustukoa izango genukeela, horrela bertan lan egiten ari garen bitartean, interneten bidez egiten diren bai salerosketa, bai banaketa edota tramitazio guztiak kontrolatu ahal izango genituzke. Baina bulego honen arrazoi nagusia, gure erosle berriek informazio puntu bat edukitzea izango litzateke, kontsumitzaileek dituzte zalantzak argitzeko helburuarekin.



Lehen aipatu dugun bulegotxoak kexak edo proposamenak egiteko egongo den leku aproposa izango da, horrela gure bezeroen kexak zuzenezuzenean helduko lirarteke gure belarrietara.

Honekin nahi duguna bezeroekin zuzeneko harremana izatea da. Oso garrantzitsua da guretzat bezeroek ondo sentitzea bai gure harremanarekin bai gure produktuaren kalitatearekin.

Informazio puntu bat (edo gutxi batzuk) bakarrik, gutxienez hasieran egongo denez, bezeroek kexak, zalantzak proposamenak ... interneten bidez egin ahalko dituzte.